



## EIMA PROGRAMA

### Euskal Ikasmaterialgintza

#### 1. Euskal ikasmaterialen garrantziaz

Hezkuntza-jarduna artez eta moldez aurrera eramateko behar-beharrezkoak diren artean, besteak beste, ikasmaterialak ditugu, edozein dela jarduten den herria eta hizkuntza. Material sinple-sinpleak edota landuagoak, euskarri idatzian nahiz teknologia berrien formatu sofistikatuagoetan, kontua da hezkuntza-lanak beharrezko duela tresna hori.

Behar hori arras nabarmenagoa izan da eta oraindik ere bada, azken 20 urteotan euskal irakaskuntzak bide luzea egin arren: ikasmaterial eza, ikasle-urritasuna, ikasketa-dibertsifikazioa... Horiei guztiei aurre egin eta euskal ikasle-irakasleei auzo-hizkuntza erraldoietan ikasten-irakasten ari direnei besteko ikasmaterial-aukera eman nahirik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Euskararen Normalizaziorako Legeak hartarako ematen duen babesa oinarritzat harturik, euskarazko ikasmaterialen laguntza-bideari ekin zion, hasiera-hasieratik, EIMA programa sortuz.

EIMA programaren xedea horixe dugu, hortaz, unibertsitate aurreko ikasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortu, argitara eman eta zabalkundea izan dezaten administrazioetik bertatik sustatze-lana egin eta laguntza eskaintzea.

#### 2. Urteroko EIMA deialdiak

##### Nondik norakoa

<b>EIMA I</b>	Ikasmaterial inprimatuak argitaratzeko diru-laguntzak.
<b>EIMA II</b>	Ikus-entzunezko ikasmaterialak argitaratzeko diru-laguntzak.
<b>EIMA III</b>	Hezkuntza-sofwarerako, hau da, euskarri informatikoan ateratzen diren ikasmaterialetarako diru-laguntzak.
<b>EIMA IV</b>	Mintegien bidez ikasmaterialen prestakuntza-lana egiten duten egile edo egokitzaileentzako diru-laguntzak (alegia, argitaratu aurreko fasea).
<b>SARIAK</b>	Ikasmaterial inprimatu hoberenak (Isaac López-Mendizabal saria)  Ikus-entzunezko ikasmaterial eta hezkuntza-software hoberenak (Migel Altzo saria)

Deialdi bakoitzean parte hartzeko baldintzak EHAAn (Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian) argitaratzen dira eta, gerora, erabakitzen diren diru kopuru zehatzak ere Aldizkari horren bitartez jendaurreratzen dira.

### 3. 2005ean banatuko diren diru -kopuruak eurotan:

EIMA I	899.556
EIMA II	300.150
EIMA III	475.000
EIMA IV	266.535
SARIAK	36.648

<b>Guztira</b>	<b>1.977.889</b>
----------------	------------------

### 4. Azken urteotan argitaratutako ikasmaterial kopurua

Urtero 300-350 ikasmaterial argitaratzen da, lau deialdien babesean. Irakasmaila guztietako materialak izaten dira, 3-18 urte bitartekoak, eta indarrean dauden curriculumen arabera eginak.

### 5. Ikasmaterialen egokitasuna eta kalitatea

Hezkuntza Sailak, argitaratzekoak diren ikasmaterialak egokiak eta kalitatezkoak direla ziurtatzeko, hizkuntzazko eta edukizko azterketak egiten dizkie (teknikazko azterketa ere bai, materiala euskarri informatiko edo ikus-entzunezkoan doanean), diru-laguntzetara aurkeztutako material guztiei. Azterketa hori egiteko ardura teknikari berezituaren eskuetan ipintzen du Sailak eta, jasotako emaitzen argitan, onspena eman edo ukatu egiten dio ikasmaterial bakoitzari, dagokion egile edota argitaletxea orrazketa egitera bultzatuz.

295/1998 Dekretuak arautzen du ikasmaterialen onspen-prozedura eta onspenerako irizpideak. Hona hemen irizpide nagusiak:

- Edukiaren egokitasuna, indarrean dagoen curriculumaren arabera neurtzen da.
- Hizkuntzaren egokitasuna, berriz, Euskaltzaindiaren arau eta aholkuez gain, *Ikasmaterialen Aholku Batzordeak* gomendatzen duen ildotik aztertzen da.